



ADMINISTRATIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, HONAKO ZERBITZU HAU KONTRATATZEKO: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGORA KO SEGURTASUN ERAGIKETEN ZENTROAREN ZERBITZUA, EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAI NTZEA» 5. OSAGAIAREN «AZPIEGITUREN ARAZKETA-, SANEAMENDU-, EFIZIENTZIA-, AURREZPEN-, BERRERABILPEN- ETA SEGURTASUN-JARDUKETAK GAUZATZEA» 1. INBERTSIOAREN (C5.I1) ESPARRUAN (3156 ESPEDIENTEA)

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Marian Mena Domínguez
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzaileraren profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: SEGURTASUN ERAGIKETEN ZENTROAREN ZERBITZUA (SEZ) 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zenbait enpresa espezializaturekin batera, segurtasun-eragiketen zentroari lotutako zerbitzuak planifikatu, garatu eta mantentzen ditu. Mehatxuak eta erasoak gero eta handiagoak eta konplexuagoak direnez, eta informazioaren segurtasunaren eta zibersegurtasunaren alorrean Espainian zein nazioartean gero eta gorabehera gehiago daudenez, beharrezkoa da horietan espezializatutako kanpoko zerbitzuak kontratatzea, gertakari baten aurrean, denbora errealean monitorizazio, detekzio, analisi eta erantzun egokia ziurtatuko dutenak, eta BBUP mehatxu zibernetikoetatik eta kalteberatasunetatik babestea ahalbidetzen dutenak. Honako zerbitzu hauek eman beharra dago: Ziberinteligentzia, Segurtasunaren monitorizazioa, Segurtasun-gertakarien kudeaketa, segurtasun-auditorien zerbitzua eta kalteberatasunen analisia. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: BBUP osorako zerbitzu global bakarra da, informazioaren segurtasunaren ikuspegi osoa ematen duena; koordinatzen du eta ahalbidetzen du erantzuna ematea segurtasun-gertakarien aurrean, eta BBUPen segurtasun-politikak ezartzen ditu 4.- CPV: 79710000-4 Segurtasun-zerbitzuak 5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)

**EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO
(150.000,00 €).**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 450.000,00 euro

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa
☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

- 2025. urtea PARTIDA: 92005.22707 ZENBATEKOA: 25.000,00 euro (BEZa gabe)
- 2026. urtea PARTIDA: 92005.22707 ZENBATEKOA: 125.000,00 euro (BEZa gabe)

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☒ BAI ☐ EZ

Funts mota:

Europar Batasunaren Next Generation EU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

% 61,39, elkarrekin finantzatua: (BEZari dagokiona izan ezik)

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez:

- 3. eta 4. prezioekin lotutako zerbitzuak egindako kontsumoaren bidez ziurtatuko dira.
- 1., 2., 5. eta 6. prezioari lotutako zerbitzuak prezioaren hainbanaketaren arabera, 12 hilerokotan.

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE.

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ 12NA HILABETEKO 2 LUZAPEN.



D.- KONTRATUAREN EPEA

4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria

5.- Kontratua exekutatze tokia: BBUPen instalazioak

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (150.000,00 €)



G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Azken hiru urteetan segurtasun-eragiketen zentroko zerbitzuetan egindako lan nagusien zerrenda, zeinetan haien datak eta hartzaileak (publikoak edo pribatuak) aipatzen diren. Organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako lanak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada. Hartzailea subjektu pribatu bat bada, subjektu horrek emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpen bat. Horretarako, gutxienezko betekizuna izango da bolumenik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo, kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70 edo handiagoa izatea, urteko ordainketa kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.
- Aurreko zerrendan adierazitako zerbitzuak behar bezala gauzatu izanaren ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek zerbitzuen zenbatekoa, haiek emateko data eta lekua adieraziko dute, eta lanbidea arautzen duten arauen arabera egin ziren eta behar bezala gauzatu ziren zehatuko da. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat bada, hark emandako ziurtagiriaren bitartez eta, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, haren eskuetan dauden eta zerbitzua eman duela egiaztatzen duten agiriekin batera.
 1. ISO 20000, ISO 27001, ISO 22301 eta ENS (maila ertaina edo goikoa) ziurtagiriak, segurtasun-eragiketen zentroko zerbitzu-prestazioarekin lotutakoak.
 2. Agiri bidez egiaztatu beharko dute jarraian datozen baldintzetako bi betetzen dituztela, gutxienez:
 - a. FIRST (Forum of Incident Response and Security Teams) taldeko kidea izatea.
 - b. CSIRT.es foroko kidea izatea.
 - c. TF-CESIRT Trusted Introducer foroak egiaztatua egotea.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Lanak gauzatzeko metodologia deskribatu beharko du, eta bertan zehaztu beharko dira lizitatzailerari hura betetzea bermatzeko kasu bakoitzean ezarritako konpromisoak, zerbitzua ezartzeko faseak eta haren jarraitutasuna.
- Kontratua gauzatzeko dituzten teknikarien berri ematea. Langileok esperientzia izan beharko dute ezaugarri tekniko bereko zerbitzuak garatzen.
- Zerbitzuetako bakoitzaren kudeaketa eta jarraipenerako prozedurak.
- Gertakarien korrelazio-sistemaren ezaugarri teknikoak.
- Zerbitzurako behar diren gainerako tresnen ezaugarri teknikoak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Prezioa	Prestazioa	UNITATEA	ZENBATEKO UNITARIOA	GUZTIZKO ZENBATEKOA
1	Kalteberatasunen analisia	1		
2	Auditoria Perimetrala	1		
3	Intrusio-testa (<i>hacking</i> etikoa)	1		
4	Kode-auditoria	1		
5	Monitorizazioa, detekzioa eta segurtasun-gertakarien kudeaketa (24x7x365)	1		
6	Ziberinteligentzia	1		

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA / ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA / ADITUEN BATZORDEA.

Lehendakaria:

Ekaitz Mentsaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoez (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

B_i

$$P_i = \frac{\text{-----}}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < B_i \leq 0,8 \times BBB$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < B_i \leq BBB$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < B_i \leq (BBB + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BBB)}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBB - B_{max})}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

1. Segurtasun-eragiketen zentroko zerbitzuaren memoria teknikoa eta hura emateko metodologia 30 puntu:

- Proposamen teknikoa kontratuaren xedera egokitzea
- Zerbitzu-ematearen irismena
- Zerbitzua emateko proposamen teknikoa
- Lanen programazioa: Jardueren iraupen justifikatua, koherentzia banaketa sekuentzialean, lortutako xehetasunezko garapen-maila.

2. Kontraturako eskuragarri jarritako bitarteko teknikoak — 20 puntu:

- Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak
- Taldearen antolaera

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- Plantillan emakumezko enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztzen badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da puntuen erdiak ez lortzea balioesteko irizpide bakoitzean.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztatzea.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatzeko kontratuei dagokienez, aurreikusitako aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

BAI

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
- VII. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. **5. osagaiaren barruan («Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea»), 1. Inbertsioa sartzen da:** Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko **azpiegituren arazketa-, saneamendu-, efizientzia-, aurrezpen-, berrerabilpen- eta segurtasun-jarduketak gauzatzea**. Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; Kontratatik/azpikontratatik hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematen du.

Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira:

- **1.a azpineurrian**, ura arazteko, saneatzeko eta berrerabiltzeko jardueri buruzkoan, bai eta **1.b azpineurrian** ere, uraren erabileran efizientzia hobetzeko eta galerak murrizteko jarduketei buruzkoan.



	Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, <u>Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana</u> diseinatuta dagoen bezala, «<u>Urak eta hondakin-ur hobetuak tratatzeko azpiegiturak</u>» CID helburua betetzen (1. inbertsioa: CID #76), 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientiaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko. Kontuan hartuta inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I1 neurriaren barruan daudela, <u>egin beharreko jarduketek 1. inbertsioko esku-hartze esparruarekin bat egingo dute: 041 bis- «Hondakin-urak jasotzea eta tratatzea energia-efizientiako irizpideei jarraikiz»</u>; haiek jasota daude Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren (EB) VI. eranskinean: «<u>Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia</u>». Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA:	SEEPE 1 – URDATA – C A.26 taldea
Kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/CAS/Plan-integridad-medidas-antifraude.pdf